



**2011KO MAIATZAREN 12KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako maiatzaren hamabian, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albi-su Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Juan Manuel Serna Portugal eta Iñaki Saldaña Herrero.

Inazio Barandiaran Aldasoro, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio eta Javier Moreno González de Lara zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- KIROLDEGIAN ARKITEKTURA OZTOPOAK KENTZEA LANEN LIKIDAZIOA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren Arkitektura Oztupoak Kentzea lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek lanen likidazioa den obra-egiaztagiria luzatu dute. Likidazioa den obra egiaztagiriaren zenbatekoa BERREHUN ETA HOGEITA BI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI EURO eta LAUROGEITA HAMASEI ZENTIMOTakoa (222.697,96 €) da. Lan hauek Construcciones Artzamendi, S.A. enpresak burutu ditu.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren Arkitektura Oztupoak Kentzea lanen likidazio den obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

II.- KIROLDEGIAREN BIRMOLADAKETAREN 4. FASEKO LANEN 3. ETA 4. OBRA-EGIAZTAGIRIAK.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek 4. faseko lanen 3. eta 4. obra-egiaztagiriaz luzatu dituzte. 4. faseko 3. obra egiaztagiriaren zenbatekoa BERROGEITA BEDERATZI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI EURO eta LAUROGEITA HAMAR ZENTIMOTakoa (49.559,90 €) da eta 4. obra-egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA BERROGEITA BAT MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HEMERETZI EURO eta LAUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (141.539,97 €). Lan hauek INGESLAN, S.L.U. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.



Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren birmoldaketa lanen 4. faseko 3. eta 4. obra-egiaztagiriak onartzea erabakitzen du.

III.- C.A.F.EKIN HIRIGINTZA HITZARMENA.-

Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 Hirigintza jarduketa Area -CAF-ko lurren gehiengoaren jabea Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. enpresa da.

Gune honetako hirigintza garapenari buruz C.A.F., S.A. eta Lazkaoko Udalaren artean izandako elkarrizketen ondorioz gune honetako hirigintza hitzarmena izenpetu zen bi-artearen 2011ko otsailaren 1ean.

2011ko martxoaren 24ko alkatetzaren ebazpen bidez, hirigintza hitzarmen hau jendaurrean jartzea erabaki zen, 20 eguneko denboraldian.

Hirigintza hitzarmen hau jendaurrean jartzen zela adierazten zuen iragarkia 2011ko apirilaren 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta jendaurrean egon den denboraldian ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Guzti hau honela, hirigintza hitzarmen hau aztertu ondoren eta hirigintza batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioa hartu du:

LEHENA.- Lazkaoko Planeamenduko AA.SS.eta 1 H.J.A. -C.A.F.- lurren gehiengoaren jabea den C.A.F., S.A. enpresa eta Lazkaoko Udalaren artean izenpetutako hirigintza hitzarmena, bere espedientearen dagoena, onartzea.

IV.- BEASAIN ETA LAZKAOREN ARTEKO MUGAKETA.-

Lazkaoko Udalak, 2008ko azaroaren 27an egindako osoko bilkuran hartutako akordio bidez, Beasain eta Lazkaoren arteko mugarrien berrikuskaketa egin eta falta zirenak jartzeko espedientea hastea erabaki zuen. Halaber, eginkizun horiek aurrera eramateko batzordea izendatzea eta akordio horien berri bai Gipuzkoako Foru Aldundiari, bai Beasaingo Udalari, bai mugak ukitutako lursailen lur-jabeei ematea erabaki zuen.

Mugarriak onartzeko eragiketarako Gipuzkoako udal barrutiak arautzen dituen 2003ko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren II. tituluan xedatutakoari jarraituz egin dira 2009ko azaroaren 12an eta 2011ko maiatzaren 5ean, udal bakoitzeko batzordekideek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatutako ordezkariak.

Berrikuskatu diran mugarriak bederatzi izan dira, batetik bederatzira arteko zenbakiak dituztenak.

1 zbk. daraman mugarrian, Beasain eta Lazkaoren arteko muga egiteaz gain Ordi-ziarekin ere muga egiten duenez, udalerrri horretako batzordeak izenpetutako eranskina erantsi da; eta 9 zbk.ia daraman mugarrian, Beasain eta Lazkaoren arteko muga egiteaz gain Olaberriarekin ere muga egiten denez, gauza bera egin da Olaberriako batzordearekin. Argitu behar da Olaberriako Udalak bere ez-adostasuna adieraziz izenpetu duela 9. mugarri honi dagokion eranskina.



Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, hirigintza batzordearen proposamenez, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, eta beraz legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, izenpetu diren Beasain eta Lazkaoren arteko mugaketa akta hauek eta bere eranskinak onartzea erabakitzen du.

V.- GOIEKI, S.A.REN 2010EKO KONTUAK.-

Jarraian GOIEKI, S.A.ren 2010eko kontuak aurkezten dira Osoko Bilkurara bere onarpenerako.

Alkateak esaten du kontu hauek GOIEKI, S.A.ko Administrazio Kontseiluan onartuta daudela eta Udaletako onarpenekin hurrengo Batzar Orokorrera eramango direla honek bere onarpena eman dezaion eta batzar horretan bera izango litzakela Lazkaoko Udalaren izenean, Osoko Bilkura honek erabakitakoarekin bat, botua emango lukeena.

Osoko Bilkurak, GOIEKIko 2010eko kontuak aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, kontu hauek onartzea erabakitzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dularik.

